

# 1 - Balio proposamena



Monstruos SA, beldurra ematen duen segurtasuna

Gure enpresak segurtasun ateak egiten ditu. Bezeroen premiak asetzea lehendabiziko helburua denez, gure produktua merkatuko onena da, segurtasun maila ikaragarri handia delako.



Gure berezitasun nagusia sarrailetan dago. Sarraila bereziak ezarri ditugu ateetan, sistema elektriko berezi batekin konektatuak daudenak.

Merkatuko segurtasun sistemarik eraginkorrena denez, ateen prezioa ohikoa baino handia izango da, baina segurtasun-maila ezin hobearekin.

Gure atek industria berritzailea erreboluzionatuko du, uhin elektromagnetikoei esker funtzionatzen dutelako.

Atearen markoa generadore elektriko batera konektatuta egongo da eta azken hau eraikinaren sistemara. Atea sarrailez beteta egongo da eta seinale elektriko bati esker beti itxita egongo dira. Behin hatz-aztarna, pasahitza edo irekitze sistema aktibatzerakoan seinale elektrikoa geldituko da, sarrail guztiak atzera botatzen eta atea irekiz.

Segurtasun sistema bezala, eraikineko elektrizitatea joaten bada, generadorea martxan jarriko da eta atea

itxita geratuko da. Norbaitek inhibidore bat erabiltzen saiatzen bada, atean jarritako uhin sentsore batek uhin hori interpretatuko du eta atea hurrengo orduan blokeatuta geratuko da; Blokeo hori Securitas

Direct-era bidaliko da, laguntza eske.





Metal laminak “Metal Group”en erosten ditugu eta Matriceria Desusto-ra bidaltzen ditugu trokelen bidez xafla hori ate forma hartzeko . Xafla hartu ondoren, gure ekoizpen tailerrera eramaten ditugu, hor, sarrailetan infragorriak akoplatu eta ondoren xaflan sartzen ditugu. (Zirkuitu elektrikoa gure materialekin sortzen dugu; inhibidoreak, infragorriak). Hori egin eta gero gure giltz teknologikoa (Amazoni erosten diogu) eta metalezko xafla bat egiten dugu. Azkenik zirkuitu elektrikoa xaflan sartzen dugu gero generadorearekin eta giltza teknologikoarekin konektatzeko.